

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO OSTATUAK ETA OSTALARIAK

·Zuek bai jakin!: Iñigo Jaka ·Elkarrizketa: Mikel Lizarralde ·Izerdi patsetan: Beatriz Saiz ·Boteprontoan: Idoia Luzuriaga

Herri Aldizkaria Otamotz

2008ko
urria
140. alea



Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!



Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen
eraikuntza

Industria
pabilioiak

Urbanizazio
lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren
ondoan 6 chalet adosaturen
eraikuntza berria

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxu eta Zumarragako ostatuak eta ostalariak
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Zer iruditzen zaizu Legazpira doan bidegorria?
Nahikoa eroso eta garbia al da?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Jesus Udabe *Aresti*
- 18 Zuek bai jakin!**
Iñigo Jaka
- 22 Elkarrizketa**
Mikel Lizarralde
- 25 Argazki zaharra**
- 26 Izerdi patsetan**
Beatriz Saiz: 25 urte eta gero, gimnasia erritmiko eskolari agur
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Idoia Luzuriaga



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Herriko ostatuak eta ostalariak

Ostatu eskaintza izugarri handitu da azken urteotan. 90eko hamarkada arte Etxeberri hotelak eta pentsio gutxi batzuek bakarrik eskaintzen zituzten logelak. Gutxira Balentiña pentsioa ireki zen eta azken urteotan Urola eta Zelai pentsioak eta Santa Kutz hotela gehitu zaizkie. Guztira 86 gela eskaintzen dituzte. Aurki 45 gehiago izango dira, Nafarroako enpresa bat hotela eraikitzen ari baita Pagoeta auzoan. Kanpotarrei eta bertakoei ostatu ematen makina bat urte daramatzaten Jose Manuel Zubizarreta, Pakita Zabaleta eta Juanita Elgarrestarekin hitz egin dugu euren lanbideaz.

Etxeberriko nagusiak eta langileak, bertako lorategian. Argazkia: Gotzon Aranburu



Jose Manuel Zubizarreta: “Industria munduko jendea bazkaltzera etortzen zen eta handik gutxira logela eske hasi ziren”

Urretxu eta Zumarragako ostalaritzaz hitz egin behar bada, Etxeberriz hitz egitea derrigorrezkoa da. Jose Manuel Zubizarretaren familiak lau belaunaldi daramatza bertan lanean. 70eko hamarkadatik hona, berriz, ehundaka ezkontza, jaunartze eta bataio ospatu dira bertan eta beste horrenbeste lagun ezagunek hartu dute ostatu.

Garai batean Etxeberri baserria zen eta bertan sagardotegia zegoen. “Sagardotegiak egungo moduan funtzionatzen zuten, janaria ematen zen alegia. Hori bai, garai bateko menuak eskaintzen ziren. Bakailao tortilla, tripakiak... eta halakoak ematen ziren. Ordurako morroiak eta neskak zeuden. Lan asko egin da beti etxe honetan”, azaldu du Zubizarretak.

Sagardotegira Urretxu eta Zumarragako jendea joaten zen, baina bi herriak aldatzen hasi ziren eta Etxeberrikoek negozioa garai berrietara egokitzea erabaki zuten. “Industria munduko jendea bazkaltzera etortzen zen eta handik gutxira logela eske hasi ziren. Hala, hotela erakitzea erabaki genuen”.

Sagardoa egiteari ere utzi zioten. “Freskagarriak heldu zirenean (Schuss, Orangina, Kas...), sagardoa beherakada izan zuen. Etxean egiten genuen sagardoa, gurean kontsumitzeaz gain, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako tabernetan saltzen genuen. Edari berriak sartu zirenean, jendea horiek kontsumitzen hasi zen eta urte pare batean oso sagar-



do gutxi saldu genuen. Sagardoak lana ematen du eta, ez bada saltzen, ez du egitea merezi. Orditik Astigarragatik ekartzen dugu”, azaldu du. Sagardoa egiteari uzteak pena eman zien, baina Zubizarretak argi du ostalaritzan bezerekin agintzen dutela. “Berak nahi duena eskaini behar da beti. Enpresen politika eta gurea berbera dira”.

Negozioa aldatzeko ez zuten baserria bota, handitu baizik. Hotela 1973an ireki zuten. “27 gelarekin ireki genuen eta orain 35 ditugu. Azkeneko obra handia duela dozena bat urte egin genuen”. Etxeberri ezkontza ospakizunengatik ere ezaguna da. Zubizarretak lehenengoa

1955 urte inguruan eman zutela gogoratzen du. “Janariarekin hartu-eman eta bezeroak genituen, horretan ere hasi ginen”, dio.

Garai hartan Urretxu eta Zumarragako jendeak bakarrik ospatzen zuten ezkontza Etxeberrin. Egun, ordea, inguruko herrietakoak ere bai. “Autobusen kontuarekin, kanpoko jendea ere etortzen da. Dena den, Gipuzkoatik kanpoko oso gutxi ospatzen dute hemen euren ezkontza. Gehienak Goierrikoak dira”.

Toki gutxitan ematen dira Etxeberrin bezainbeste bankete. “Maiatza aldera arte lasai samar ibiliko gara, baina lauzpabost hilabetetan larunbatero izaten dira

ospakizunak. Egun batzuetan bat baino gehiago, gainera". Astegunetan, berriz, enpresetako jendea izaten dute batez ere. "Inguru honetako enpresetara dato- rren jendea izaten dugu: Arcelor-Mittal, Beasaingoak, Bergarakoak... Baita enpresa txikietakoak ere. Atzerritar asko etortzen dira eta gazteak moldatzen dira beraiekin, ingelesez eta frantsesez hitz egiten baitakite".

Ospakizunetara eta enpresetara dato- rren jendeaz gain, makina bat artista eta politikari pasatu dira Etxeberritik.

Lech Walesa,

Ramoncin, Mayra

Gomez Kemp eta Paco

Camino, besteak beste,

Etxeberrin izan dira

"Sinadura liburu bat dugu, baina bat- zuen letra ez dago ulertzerik. Duela gutxi Lech Walesa poloniarra izan zela gogoratzen dut", dio Jose Manuel Zubizarretaren alabak. Ramoncin musika- ria, Mayra Gómez Kemp telebista aurkezlea eta Paco Camino toreroa ere, besteak bete, euren etxean izan zirela gogoratzen dute.

Bezero batzuek ez dute halako hotelik espero Urretxu eta Zumarragan. "Familia baten bizitza osoko lanaren fruitua dela esaten diet. Dagoeneko lau belaunaldik egiten dugu lan hemen".

Etxeberrik sona handia lortu du eta, hala, beste toki batzuetan ere jatetxeak ireki-

tzeko eskaintzak jaso dituzte. "Honekin nahikoa eta soberan dugunez, beti ezez- koa eman diegu". Zubizarretaren ustez euren jardunak ez du sekretu handirik. "Gurasoek arduratsua izan behar dela eta lana egin behar dela irakatsi ziguten. Egun horiek faltan dira. Jendeak ez du lanik egin nahi. Fundamenturik gabeko jendea ikusten da. Oraingo ziklo on hau luzeegia izan da eta gazte askok haizeak nondik jotzen duen ere ez daki. Inon lanean hasi bezain pronto, autoa eta pisua nahi dute. Gure sasoiari izerdiare- kin eta sakrifizioarekin lortu genituen lortu genituenak...".

Ez du uste krisiak ohitura txarrak kon- pontzen lagunduko duenik. "Pixka bat okertzen den zuhaitza gaztetan zuzendu behar da, gero zaila izaten da. Ezer ez da erreza. Nik 75 urte ditut eta gerra ondorengo gorabeherak ikusi ditut. Hark eta oraingoak ez dute inongo antzik. Zer gertatu da? Kanpotik etorri eta saiatzen denak aginduko du hemen. Euskadi ahoan dugu beti, baina egiten ari garena izango gara. Lanik egin gabe ez dago ezer. Hori gazteei buruan ondo sartzen ez bazaie...".

Jose Manuel Zubizarretak eta bere etxe- koak oso gaztetan hasi ziren lanean. "Sei anaia-arreba gara eta guztiok lagundu dugu hemen. Dagoeneko jubila- tuta gaude eta nire bi alabek daramate negozioa. Lan ona egiten dute. Bestalde, etxetik kanpoko dozena bat lagun ere baditugu. Gehienak aspalditik dabilta hemen".

Garai batean, etxeako arduratzen ziren sukaldeko lanaz. Azkenaldian etxetik kanpoko sukaldariak dituzte. "Garai bate- an emaztea, arreba... aritzen ziren, baina

adinean aurrera egin zuten eta sukaldean azkar lan egin beharra dago. Egun gazte- ak ditugu sukaldean".

Jose Manuel Zubizarretak ez du etorki- zuna begi onez ikusten. "Bertakoek lan egiteari uzten diotenean eta kanpokoak hasten direnean, lehenengo gauza horiei irakastea da. Hemengook aberas- tuta bezala bizi gara: inork ez du larun-

"Kanpotik etorri eta

saiatzen denak aginduko

du. Euskadi ahoan dugu

beti, baina egiten ari

garena izango gara"

bat eta igandetan lan egin nahi. Ostalaritzako lana oso lotua da eta egin- go gazteek ez dute hori nahi. Horrela jarraitzen badugu, aurrez prestatutako jakiekin elikatuko gara".

Bukatzeko, etorkizuna alde batera utzi eta iraganeko anekdotaren bat gogora- tzeko eskatu diogu Zubizarretari. "Hau sagardotegia zenean kupel batean *edan eta paga* jartzen zuela oroitzen dut. Horrek garai hartan ere artistak bazeu- dela esan nahi du: sagardo tragoa hartu eta alde egiten zuten horietakoak. Orain ere tokatzen zaizkigu halakoak. Batzuek edozein tontakeriarengatik erreklama- zioa aurkezten dute, handik edo hemen- dik gutxiago ordaintzea lortzeko. Jendea lotsagabetzen ari da. Halako artistak atea ireki eta berehala antzematen ditut jada", amaitu du.

Pakita Zabaleta eta Jose Garralda: “Langileak gurera etortzen ziren, Etxeberrik baino askoz ere gutxiago kobratzen baikenuen”

Pakita Zabaleta eta Jose Garralda, euren etxean.



Pakita Zabaletak eta Jose Garraldak hiru etxebizitza dituzte eta alokairuan jarri baino, pentsioa irekitzea nahiago izan zuten. 1977tik hona makina bat lagun pasatu da euren etxeetatik, langile-jendea batez ere. Egun beraiekin urte asko dar-matzaten bi laguni bakarrik ematen diete ostatu eta etxebizitzak alokairuan jartzeko asmoa dute.

Bikotea Secundino Esnaola kalean bizi da eta langileei ostatu emateko erabili dituzten etxebizitzak Bidezarren eta Iñigo de Loiolan daude. Aipatu bezala, nahiago izan zuten pentsioak ireki etxe-

bizitzak alokatu baino. “Lotsagabe asko dago eta kontu handia izan behar da. Etxea alokairuan jartzen baduzu ezin zara alokatu duenaren baimenik gabe sartu eta edozer gauza egin dezake”, dio Pakitak.

Garraldak pentsioa ireki aurretik etxebizitzetako bat alokatu egin zutela eta esperientzia txarra izan zutela gogoratzen du. “Lanera etorritako batzuei alokatu genien, baldintza penagarrietan bizi baitziren. Baina gero ez zituzten ordaindu behar-rekoak ordaintzen eta ez zegoen botatzeko modurik. Azkenean, zorionez, Legazpi

auzunean etxebizitza merke bat topatu zuten eta bertara Joan ziren”.

Hori ikusirik, pentsioak irekitzea erabaki zuten. Garraldak Gabiriako azulejo fabriketan lan egiten zuen eta Zabaleta zen etxebizitzak txukun mantentzeaz arduratzen zena. 79 urte dituen arren, oraindik lan horretan dihardu. Senarrak, berriz, bezeroen deiak hartzen laguntzen zion.

Gehienak langileak ziren. “Pisuak ez daude turistak eta halakoak hartzeko prestatuta: bainu bakarra dago, gelek ez dute telebistarik... Langileak gurera etortzen ziren, Etxeberrik baino askoz ere gutxiago kobratzen baikenuen. Hasieran gaua 300 pezeta kobratzen genuela oroitzen dut. Telefono eta telebista eske etortzen zirenak Etxeberrira bidaltzen nituen, baina gurean baino bost edo hamar aldiz gehiago ordaindu beharko zutela ere aipatzen nien”, azaldu du Garraldak.

Bezero batzuk lotsagabe hutsak zirela gogoratzen dute. “Iruzurgile asko dago. Fidatuegiak ginen eta ez genien hasieran kobratzen. Gehienek bukaeran ordaintzen zuten. Gainera, toki guztietan guk baino gehiago kobratzen zuten. Halako batean prezioa igo genuen eta bezero batek bazela garaia esan zigun”, gogoratzen du senarrak.

Bere emazteak egin duen lana gogorra dela argi utzi nahi du. “Egun bakarrerako datorren lagun batengatik izarak garbitu eta lixatu, ohea egin eta erratza pasatu behar da. Emazteak egiten zuen lanak bakarrik, kobratzen genuena baino gehia-

go balio zuen. Gure etxera emakume bat etortzen da eta orduko 12 euro kobratzen du. Tontoak izan gara... Oraindik ere 1.000 pezeta bakarrik kobratzen dugu gaua”.

Dagoeneko aspaldikoak diren bi bezero bakarrik dituzte eta ez dute berririk hartzen. Etxebizitzak alokairuan jartzeko asmoa dute. “Berritu egin behar ditugu eta Eusko Jaurlaritzari eman behar dizkiogu, alokatu ditzan. Emazteak lana egiteari utziko dio behingoz”, azaldu du Garraldak.

Jaurlaritzak alokairuan jartzen diren etxebizitzak zaintzen ditu eta pentsioan, berriz, kontu handiarekin ibili behar da. “Bezeroren batek ohean txiza egin du, drogazaleekin kontu handiarekin ibili behar da... Bizilagunek, ulertzekoa denez, kexatu egiten dira pentsioan gustuko ez duten norbait sartzen bada”.

Pakita Zabaletak behin ustez emagaldua zen bati ostatu eman ziotelako kontu eske etorri zitzaizkiela gogoratzen du. “Legazpiko emakume batek deitu zidan ostatu eske eta hartu egin nuen. Bizilagunek emagaldua zela esan zidaten eta haserretu egin ziren. Nortasun agirian ez duela halakorik jartzen eta ea nola zekiten galdetu nien. Bidali egin behar izan nuen”.

Garai batean poliziak ere gertutik jarraitzen zuen Garraldaren eta Zabaletaren jarduna. “Hilero joan behar izaten nintzen komisaria-
ra sartu-irtenen berri ematera. Gero hiru hilean behin joaten nintzen eta, azkenean, ezer arrarorik ez zela gertatzen ikusi zutenean, joateari uzteko esan zidaten. Polizia kendu zutenean ertzainengana jo nuen badaezpada ere, baina ez zutela informazio horren beharrik erantzun zidaten. Pertsona garrantzitsuren bat etorri denean bakarrik eskatu digute bezeroen zerrenda. Aita Santua etorri zenean, adibidez”.

Juanita Elgarresta: “Hasieran Bilbotik etortzen zen jende asko, hemengo lantegietan konponketak egitera”



Juanita Elgarresta, bere etxeko balkoian.

Juanita Elgarresta urretxuarrak duela 30 urte ireki zuen pentsioa, Ipeñarrieta kaleko 2. zenbakian. Hasieran bi herriotako lantegietara etorritako jendea hartzen zuen eta ondoren, urte askotan, RENFEko langileak izan zituen. Egun aspalditik berean bizi direnak bakarrik ditu eta ez du jende berririk hartzen. Bere lana gustuko du eta ahal bezainbeste urtetan jarraitzeko asmoa du.

Elgarresta Erratzu baserrian jaio zen. Ezkondu ondoren Legazpin eta Golden

dantzalekuaren gainean bizi izan zen, 1974an Ipeñarrieta kalera joan ziren arte. Etxebizitza bakarra erosteko asmoa zuten, noski, baina ahizpak atari berean berak zuen beste bat ere eskuratzera animatu zuen. “Ahizpa nire diru-kontuez arduratu da beti eta ni sukaldari eta etxekoandre lanetan aritu naiz. Senarra ere langile porrokatua da eta, hala, elkarrekin ondo moldatu gara”, dio.

Bigarren solairukoan jarri ziren bizitzen eta seigarrenekoa alokairuan jarri

zuten. Handik urte batzuetara pentsioa ireki zuen bertan, hori ere bere ahizparen ekimenez. "Senar-emazte batzuk izan ziren gure etxean, seme batekin, 1974tik 1978ra. Utzi zutenean, ahizpari lasai egoteko esan nion, ez nuela berriro etxea alokairuan jartzeko asmorik. Zumarragako alkate izandako Jose Julian Irizarren amak RENFEko langileak izan zituen eta semeak utzi arazi ez balio jarraitu egingo zuela esaten zuen. Nire ahizpa kontu horrekin jo eta ke hasi zitzaidan eta azkenean pentsioa irekiko nuela esan nion".

Hasieran lau gela besterik ez zituen eta bezeroak Isabel tabernako Balentiñak lortu zizkion. Egun bederatzi gela ditu, bi etxebizitzatan. "Hasieran Bilbotik etortzen zen jende asko, hemengo lantegietan konponketak egitera. Autopista egin zutenean, hemen lo egiten gelditzeari utzi zioten. Ondoren, urte mordoxka baten, RENFEkoekin lan egin nuen. Hitzarmenean dutxadun gelak eskatu zituzten eta nik ezin nien halakorik eskaini. Balentiñak garai hartan ireki zuen bere pentsioa eta bertara joan ziren", azaldu du.

Egun erretiratuak eta bananduak ditu, batik bat. Gehienek denbora dezente daramate Juanitarenean. "Elkarrekin pisu berean bizi izan ziren bi lagun ditut. Ez ziren elkarrekin ondo konpondu eta azkenean biak nirera etorri ziren. Izan ere, hemen ez dituzte etxeko lanak egin behar eta 12 euro bakarrik ordaintzen dute. Alokairuan dagoenak etxea txukun mantendu behar du eta, errentaz gain, argia eta gainerakoak ordaindu behar ditu", aipatu du.

Mendian lan egiten duen enpresa bate-

ko langileak ere hartzen ditu. "Noizean behin jendea bidaltzen dit lauzpabost hilabeterako. Lehen galziarrak eta andaluziarrak etortzen ziren batez ere, baina egun marokoarrak eta errumaniarrak ibiltzen dira gehienbat baso-lanean. Jende berria ez dut hartzen dagoeneko", dio.

Juanita Elgarrestak arropak eta gela garbitzen dizkie bezeroei. Gainera, gela guztietan telebista dute eta mikrouhin-labea edukitzen uzten die. "Telebistarik gabe, jendeak ez du etorri nahi. Bestalde, batzuek mikrouhin-labea erosi

*"Pentsioetan arrisku
gehiago dago, baina ez
dago pentsioa eduki
beharrik ezbeharren bat
jasateko"*

dute eta batzuetan gelan gosaltzen eta afaltzen dute. Sukalderik, ordea, ez dute", esan du.

Ondo moldatzen da bezeroekin. "Sekula ez dut arazo handirik izan. Gainera, txiki-txikitatik gustatu zait jendearekin harremana izatea. Duela 8 edo 9 urte seme-alabak gogor jarri zitzaizkidan, lana utzi behar nuela esanez. Uzteko esan nien. Nik eraman dudak bizitzarekin etxean senarrari begira uzten baidate, Santa Agedara edo zuzenean zerura joango naizela esan nien. Oso aktiboa naiz eta osasuna dudak bitartean lanean jarraituko dut. Gainera, ahiz-

pari asko lagundu nion dendan eta orain berak laguntzen dit", azaldu du emakume urretxuarrak.

Senarrak ez du kexarik. "Gustura ikusten nau eta sekula ez dit eragozpenik jarri. Bestalde, bezero guztiek errespetua erakutsi didate. Nire ahizpa norbaitek zer edo zer egingo zidan beldur zen hasieran. Pentsioetan arrisku gehiago dago, baina ez dago pentsioa eduki beharrik ezbeharren bat jasateko".

Dena den, esperientzia txarren bat izan du. "Duela urte pare bat Gureak tailerrean lan egiten zuen bezero bati burua nahastu zitzaion eta hemen emandako faktura guztiak nahi zituela esan zidan. Lanetik bota zuten eta sei bat hilabete zeramatzan ordaindu gabe, gainera. Nik gurasoengana itzultzea nahi nuen. Halako batean Gizarte Zerbitzuetara joan zen eta salatu egin behar ninduela esan zien. Nik bera salatzeko aukera nuela jakinarazi zioten, baretu zen eta nik egindako eskaintza onartu zuen: zorra barkatu nion eta etxerako bidaia ordaindu nion".

Zorra utzita beste asko joan direla dio. "Hotelean hilabete eman ondoren ordaindu gabe alde egin duen jendea dagoela irakurri izan dut... Hoteletan hori egiten badute, hemen errazago". Hala ere, sekula ez dio beldurrik izan jendea harteari. "Alde batetik, ez ditut neure etxean hartzen. Bestetik, teilape berean daude eta bezeroak gertu izatea abantaila handia da. Gainera, esan bezala, umetatik gustatu zait jendearekin egotea. 12 urterekin plazara joaten nintzen letxugak saltzera. Pena base-riak ez zuela urte guztian plazara saltzera joateko ematen!", amaitu du.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



IRAKURRIENAK

1. Urretxu Frantzia ote?
2. Euskal Jai jendetsua izan zen atzokoa.
3. Juanjo Igarzabal eta Ainhoa Garcia zumarragarra I. Challengeko irabazleak.
4. Kantu Afari jendetsua jaiei amaiera emateko.
5. Gazte urretxuarraren aurka gaurko deituta zegoen epaiketa atzeratu egin da.
6. Urretxu-Zumarraga ikastolaren esperientzia etorkinekin. (Iritzia/Elisabeth Altolagirre).
7. Urretxuko gazte batek ertzainek jipoitu dutela salatu du.
8. Mikel Balentziaga zumarragarra Athleticera.
9. Zenbaiten pluraltasuna... (Euskalgintza/Xabier Lasa).
10. Itsaso Biaini elkarrizketa egin diote Irtika aldizkarian.

ALDIZKARIA

1. Ander Kerejeta (Boteprontoan/139. alea).
2. *Bordados* - Marjane Satrapi (Gure gomendioa - Oihane Zabaleta/139. alea).
3. Kinesio-taping (Gure aholkuak/139. alea).

AZKEN BIDEOAK

1. *Ezpata-dantza eta ezteiak* ikuskizuna.
2. Kantu Afaria 2008.
3. Euskal Jai eguna.
4. Urretxuko txistulari jaialdia.
5. Urretxuko Txalaparta Eguna.

AZKEN ARGAZKI-BILDUMAK

1. Santanastasiak 2008.
2. Jardunaldi Integratzaileak 2008.
3. *Bi gurutzeak* mendi-lasterketa.
4. Udako argazkiak 2008.

AZKEN AUDIOAK

1. Udal gobernu berriaz Mikel Serranori egindako elkarrizketa.
2. Krisi ekonomikoaren eraginak hobeto ulertzeko.

INKESTAK

Josu Jon Imaz zumarragarra Petronorrekoren presidente izendatu dute. Zer iruditzen zaizu?

-Gaizki: %66

-Berdin dit: %17

-Ondo: %17

Zer deritzozu Areizaga-Kalebarren plazan egiten ari diren eskenatokiari?

-Ez dut batere gustuko: %50.

-Gustuko dut: %38.

-Berdin dit: %12.

Zer deritzozu EA Zumarragako udal gobernuko partaide izateari?

-Gaizki: %61

-Ondo: %34

-Ondo: %5



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren eparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



Lorea
Pinturak - Etxeko apaintaketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



Lantza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntzia e Instalazioak Elctricas

HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics
URRETXU

Lurdes Rodríguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINITZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10,
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU




alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Otamotz


Herri Aldizkaria
TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Gora krisi santua!!!

Lantokietan une txarrak pasatzen ari diren lagunak ditugun arren –animo guztiei– eta lehen elurteak etorri bitartean jendea izutzeko joera naturala duten ETBko kazetariak apur bat nazkatuta gaituzten arren, esan beharra daukagu eta ozen esango dugu: gora krisi santua!!!

Nahiz eta giza baloreak aspaldi debluatuta izan, poltsikoa ukitu diguten arte burges txikiok ez dugu krisi hitza inolako elkarrizketetan aipatu. Hala ere, gure herrigintza/euskalgintza soldatek «bizitzeko lain» ematen diguten bitartean, neguko eguzkia eta udako ihintza bezala ikusten dugu motelaldi ekonomiko garai hau.

Denborak bere lekuan jartzen omen gaitu eta errezeloa daukagu aspaldion «pasatzen» ari ginela kontsumoaren gizarte honen etengabeko hazkundearekin eta ziurrenik heldu da garaia merezitako zaplastekoa jasotzeko, ea behingogatik esnatzen garen.

Gaiztoak izango gara agian, edo literatura irakasle jakintsu batek behin esan bezala, «el perro del hortelano» bezalakoak gara, baina euren burua klase ertainean kokatu zuten asko sufritzen ikustearekin gozatzen ari gara.

Krisiaren eraginez, merkatua berez orekatuko zela aldarrikatu zuten kapitalista sutsuek dagoeneko eskatu dute estatuen interbentzioa, euren porrota onartuz. Espekulazioarekin aberasteko asmoa zuten askok dagoeneko ez dute lasai lo egiten eta bankeroak eta enpresariak ere harrokeria gutxiagorekin dabilta.

Modu apalagoan; zubi guztietan kanpora joaterik ez dagoela, egunero krianzarik edaterik ez dagoela, arropak 20 bider garbitzeagatik kalanbrekin ematen ez duela eta sei hilabetez erabili ondoren mobilak deiak jaso eta egiteko gai direla ikasteak ere ez digu inolako kalterik egingo. Argi dago guztiak abantaila ugari dituela. Beraz, gora krisia!

Zer iruditzen zaizu Legazpira doan bidegorria?

Nahikoa eroso eta garbia al da?



Vicenta Valor eta Jesus Gil



Aulki premia zegoen eta jartzen ari dira. Pixatokiren bat ere behar da. Gizonezkoek edonon egin dezakete, baina emakumezkoek zailago dute. Bestalde, bidegorria Telleriarteko bidearekin lotu nahi dutela entzun dugu. Ondo legoke, orain arteko moduan auto artean eta errepi-dea zeharkatzen ibili beharra baino hobeto.

Amaia Gago




Legazpi aldera jotzen dut beti, bidegorria luzeagoa eta lasaiagoa baita. Ondo dago, baina nahiko estua dela iruditzen zait. Askotan jendea saihesten ibili beharra dago. Ez dakit zabaldu ahal den edo seinaleak jarri beharko liratekeen. Garbitasuna? Komun bat jartzea ondo egongo litzateke, batez ere adineko jendearentzat.

Juani Rezola



Ni noizbehinka bakarrik etortzen naiz eta beti Legazpi aldera. Azkoitiara doan aldean jende gehiegi ibiltzen da nire gusturako. Asfaltoari dagoionez, ni behin erori egin nintzen. Pixka bat altxatuta zegoen eta ni baldar samarra naiz... Dia supermerkatu inguruan izan zen.

Benito Padron



Mendia nahiago dut, baina bidegorria ere ondo dago. Azkoitiara doan aldean usain txarra egoten da askotan, araztegia dela eta. Beste alde honetan, berriz, lantegiek botatzen duten kea dago. Hala ere, oso ondo dago. Komun bat falta da. Izan ere, adin batetik aurrera zaila da gogoari eustea. Hiru udalen artean zer edo zer egin behar dutela uste dut.

Gaia: Legazpitik

Doinua: Gu gazte ginadela

Asier Iriondo




Kaixo Urretxu eta
kaixo Zumarraga,
zuek ez zatoztenez
gu joango gara,
igeri egitea
brazadaz brazada
errekan behera bada
errazagoa da.

Bular-igeriketan
ez noa hain lasai
jakin izango naizen
ailegatzeko gai,
ezkerreko fabrika
bai, Irimo da, bai
Etxeberri bitarte
ez nuke ito nahi.

Urolak bereizten du
Frantzia España,
hor tertuliano baten
asteko hazaina!
Jendarmeri parean
kezkak jo dit gaina;
hala ere, ez txiza
saihesteko adina.

iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua



Krisia, zein krisi?

18 urte egin zituela ez da denbora asko. 30.000 euroko auto bat erosi zuen eta hilero 900 ordaindu behar ditu. Noski, jan eta lo gurasoen etxean egiten du. Gure inguruan gertatutakoa da, baina horrelakoak asko omen daude. Lehenengo autoa da, gero etxebizitza etorriko da, marka ezaguneko arropa, oporretan urrutira egindako bidaia garestiak, astebururo etxetik kanpora afaltzera... Hori izan da gure bizimodua ditxosozko krisia etorri den arte. Denen ahotan dagoen galdera da: eta orain? Niri erantzun bat bururatzeko zait: aukera ederra daukagu gure bizimodua aldatzen hasteko. Lehenengo, ez legoke gaizki gogoeta txiki bat egitea: nora iritsiko gara etxeak eta etxeak eraikitzen, naturaren arrastorik txikiena ere utzi gabe? Nora

iritsiko gara kaleak autoz eta autoz betetzen jarraitzen badugu? Zergatik garapenari buruz hitz egiten denean garapen ekonomikoa bakarrik hartzen da kontuan? Ez daukagu beste ezer garatzeko? Zer dakigu gure auzokideei buruz? Zer dakigu aspaldiko lagunez? Gelditzen al gara kaletik aitona-amonekin hitz egiteko edo haurrekin jolasteko? Eta galderarik potoloena: zer dakigu geure buruari buruz? Sekulako beldurra diogu langabeziari eta pobrezari, baina, horiek al dira gure etsaierik handienak? Eskalataileak, galtzen direnean, "embarcada" deitzen diote. Onak bide hobeak aurkitzeko aprobetxatzen dute. Txarrek, berriz, ihes egiten dute. Orain daukagu aukera zer moduzko eskalataileak garen ikusteko.

ESTILO ARIKETAK

RAYMOND QUENEAU



Raymond Queneau

Estilo ariketak

Raymond Queneau (Le Havre 1903-Paris 1976) idazle, filologo eta matematikari frantsesak 1947an argitaratu zuen liburua da *Estilo ariketak*. 1960. hamarkadan sortuzen OULIPO (Ouvroir de littérature potentielle) taldearen sortzaileetako bat izan zen Queneau. Mugimendu horrek literatura egiteko bide berriak jorratu nahi zituen, eta horren adibide garbia da aipatutako liburua. Bertan, eguneroko bizitzan ohikoa den ger-

taera bat laurogeita hemeretzi ikuspegi desberdinetatik kontaktzen da. Istorioa behin eta berriz errepikatzen da idazkuntzan erabili ohi diren zenbait baliabide aplikatuz. Itzulpena Xabier Olarrak egin du eta zenbait moldaketa egin behar izan dizkio jatorrizko testuari. Itzultzaileak dioen bezala “irakurtzen dakien edonork irakurtzeko moduko liburua da”.

Araiz Padrón


Tricky

Knowle west boy

Bost urteko isilunearen ostean, eta *Vulnerable* (2001) eta *Blowback* (2003) eskasak argitaratu ondotik itzuli da Adrian Thaws, musikaren munduan Tricky bezala ezagun den musikari enigmatiko, irregular, talentuduna. Portishead eta Massive Attack taldeekin batera Bristolgo (Ingalaterra) trip-hop soinua zizelkatu zuen artista —*Maxinquaye* ederrarekin egin zuen debuta 1995ean— indarberritu-

rik itzuli da. Berriro sustraiei erreparatu, haurtzaroko auzoa gogoan hartu, eta handinahikeriak alboratuz hip hop, afrobeat, pop eta punk oldarraldiak bere egin ditu *Knowle west boy* lan berrian. Modu erakargarrian gainera. Kontuan hartzeko moduko piezak dira *Puppy toy*, *Joseph*, *council state*, *Past mistake* edota *School gates*.

Gorka Erostarbe




Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XIX. Astea

Zinemaldia amaitu eta handik hilabete eskasera hasten da Fantasiazko eta Beldurrezko Astea. Aurrekoarekin alderatzerik ez dago: apalagoa da, ez du disdirarik, ezta beharrik ere. Halako zine festa batek behar duena ziurtatuta du: garrasiak, barreak, odola, zombiak eta, garrantzitsuena, film onak. *Zinemaldi txikia*: gorrotagarria batzuentzat, liluragarria besteentzat. Bi lekutan banatuko dira emanaldiak: Antzoki Zaharrea eta


Victoria Eugenia. Emanaldi nagusietarako sarrerak lortzea ez da samurra, Antzoki Zaharrea tamaina dela eta. Hori dela eta, atal retrospektiboa indartu egin da. Urte honetarako Japoniako animazio filmak hautatu dira. Aste berezi hau ezagutzen ez duenarentzat, lehenbizikoz gerturatzeko aitzakia aproposa da hau. Urriaren 31tik aurrera, urteroko eromena!

ButaK 21 zineklub taldea



▼
Hona hemen Jorge Oteizari nire omenaldi xumea, bere jaiotegunaren 100. urteurrenean.

Jesus Udabe 'Aresti'



Iñigo Jaca: Mediku borrokalaria

Iñigo Jaca zumarragarrik ibilbide oparoa osatu du medikuntza munduan. Hainbat tokitan lan egiten ondoren, zuzendaritza lanean hasi zen. Donostia ospitaleko zuzendaria izan zen eta egun onkologikoa zuzentzen du. Zuzenbide ikasketak ere badi-tu eta Hendaian bizi da.

Nola oroitzen duzu haurtzaroa?

Zumarragan 16 urte bete nituen arte bizi izan nintzen. Ondoren kanpora joan nintzen ikastera: Donostiara, Bilbora, Salamancara eta azkenik Bruselara. Medrano ahizpen etxean ikasi nuen. Emakume hauek miresgarriak dira, sekulako esfortzua egin baitzuten. Beraiei esker ikasi ahal izan genuen Batxilergoa herrian bertan. Bost anaia-arreba gara eta guztiok bertatik pasatu ginen.

Zer gehiago gogoratzen duzu?

Orbegozo lantegiaren ondoan bizi ginez, urte haietako lan-gatazkak oroitzen ditut. Jolasten ari nintzela menditik korrika egitea tokatu zitzaidan, Guardia Zibila grebalariengana joan zelako eta tiroren bat airera bota zutelako. Etxekoek beldurra zuten, amari anaia fusilatu egin ziotela eta aita langileen batailoian izan zirela kontuan izan behar da.

Nola gogoratzen dituzu gurasoak?

Beti lanean. Guk ere laguntzen genien.

Iñigo Jaca, bere bulegoko terrazan.



Lan giroa ezagutu dugu eta lana balore garrantzitsua dela irakatsi digute. Guk ere gure seme-alabei hori transmititzen jakin dugula uste dut. Bestalde, etxean euskaraz egitera behartzen gintuztela oroitzen dut, nahiz eta aitak ez zuen ondo hitz egiten. Katekesia ere euskaraz ematen genuen. Lagunak utzi eta herriko baserri-tar guztiekien joaten ginen.

Gurasoek ahalegin handia egin zuten zuei ikasketak emateko.

Aitak pena handia zuen ikasteko aukera izan ez zuelako. Hori dela eta, biek esfortzu handia egin zuten guri ikasketak emateko. Baita nire arrebari ere. Garai hartan ez zen batere ohikoa neskek goi mailako ikasketak egitea.

Zergatik hautatu zenuen medikuntza?

Arratsaldeetan Gurutze Gorrira joaten nintzen. Anaia nagusiak ere medikuntza ikasi zuen Salamancan. Garai hartan medikuntzaren booma izan zen, mediku asko behar baitziren. Horretaz gain, Zumarragan oso mediku ona zegoen: Maeso doktorea. Orbegozo ondoan bizi zen eta etxera askotan etortzen zen. Pertsonaia miretsia zen eta, beharbada, horrek ere eragina izan zuen nigan.

Zer oroitzapen dituzu Salamancan emandako urteez?

Oso oroitzapen onak ditut. Ikasle euskaldun asko ginen eta oso ondo antolatuta geunden: euskara eskolak genituen, igandero elkartzen ginen euskarazko meza entzuteko aitzakiarekin, abesbatza genuen eta Santa Ageda egunean kalera irteten ginen abestera... Ikasle euskaldunen koruarena aspaldiko kontua zen.

Ikasketak Belgikan bukatu zenituen.

Frankismo garaia zen, gure herriak egoera larria bizi zuen eta borroka egin

genuen. Burgosko prozesuaren garaian gose greba egin genuen gotzainaren jauregian eta kartzelara eraman gintuzten. Horren ondorioz gertutik jarraitzen ninduten eta Frantzian errefuxiatu behar izan nintzen. Frantzian ez gintuzten ondo hartu, atxilotu egin ninduten eta mugatik urruntzera behartu, eta Bruselara joan nintzen. Bertan bukatu nituen ikasketak.

Zergatik joan zinen Bruselara?

Belgikako gobernua oso ondo portatu zen gurekin, beka eman ziguten, eta bertan ikasketak bukatzeko behar nuen lasaitasuna aurkitu nuen. Bruselako Unibertsitate Librean ikasi nuen. Masoiena da. Europako masoi guztien

*“Dirua tratamenduen
ikerketan gastatzen da
eta diagnostiko
goiztiarrera zuzendu
beharko litzateke”*

seme-alabek ikasten dute bertan. Nire aita ez zen masoia, baina oso ondo hartu gintuzten. Naziek masoi asko hil zituzten Unibertsitate horretan bertan eta errefuxiatuon aldeko sentimendua zuten.

Zer ibilbide osatu duzu medikuntzan?

Bruselatik itzuli nintzenezan, soldadutzara eraman ninduten. Gero Arrasaten eta Eibarren lan egin nuen eta handik Donostia ospitalera bidali ninduten. Bertan sei urte eman nituen zuzendari lanetan eta Gurutzetan beste hiru. Han nengoela, 1989an, Georgiako ospitale

batera joan ginen laguntzera. Gorbachoven garaia zen eta egoera nahiko txarra aurkitu genuen. Teknologia falta zuten. Dena den, independentziaren atarian zeuden eta bertako medikuak oso motibatuta zeuden. Oso ondo hartu gintuzten, euskaldunok anaiatzat baikaituzte. Ekialdeko Iberia direla diote. Burgosen ere egon naiz eta hemen, dagoeneko, 17 urte daramatzat. Familiarentzat gogorra izan da, toki askotan bizi zena tokatu baitzaigu. Emaztea institutu irakaslea da eta hiru seme-alaba ditugu.

Nolatan heldu zinen onkologikora?

Ospitaleen kudeaketan espezializatu nintzen. Bizitzak eraman nau bide honetatik, mediku izateko asmoarekin ikasi bainuen medikuntza. Bruselako ospitale bateko zuzendaritza bi burukoa zen: mediku bat medikuntza zuzendaria zen eta beste bat administratiboa. Medikuntza ikasi eta gero administrazioan lan egitea penagarria iruditzen zitzaidan, baina bizitzak horretara eraman nau.

17 urte daramatzazu bertan.

Onkologikoa zure lan taldearen fruitua dela esan daiteke.

Hala da, baina Donostia ospitalean ere gauza asko egitea tokatu zitzaidan. Bestalde, Zumarragako ospitalean ere izan nintzen. Ez zuen aurrera egiten eta horretara bidali ninduten.

Onkologikoa ez da ospitale arrunta.

Ez, gainera Kutxarena da. Kontzertatua da. Publikoan pazienteak ziurtatuak dituzte eta zerbitzua arindu egin behar da doazen guztiak hartu ahal izateko. Guk, ordea, pazienteen bila joan behar dugu.

Zein da zure eguneroko lana?

Ospitaleetan egunero ditugu ustekabeak. Planifikazio, organizazio eta kontrol lana

Iñigo Jaca Georgiako Tiblisi hiriburuko trenbide-langileen ospitalean.



da nirea. Beste eraikin bat egiten ari gara. 230 langile ditugu eta tumore solidoekin lan egiten dugu, ez leuzemiarekin eta halakoekin. Bularretako, digestio-aparatu-ko, prostatako, garuneko eta otorrinolarin-gologia ataleko tumoreekin lan egiten dugu, batik bat. Ondo kokatuta gaude, horiek baitira eragin handiena dutenak.

Zuenera datozen guztiek gaitz larria dute. Gogorra al da egunero errealitate horrekin lan egitea?

Minbizia desmitifikatu egin behar da. Goiz tratatuz gero, sendatu egin daiteke. Hori dela eta, diagnostiko goiztiarra oso garrantzitsua da. 55 urtetik gorako 10 lagun elkartzen badira, hiruzpalauk minbizia izango dute. Gaixotasun honek dagoeneko ez dakar derrigor heriotza eta gehienoi tokatuko zaigu pairatzea. Bizitza itxaropena gora doala eta minbizia generatiboa dela kontuan izan behar da.

Zer aurrerapauso eman dira?

Pazienteen bizitza kalitatea asko hobetu da. Izan ere, tratamenduak ez dira lehen

bezain erasotzaileak.

Zer egin dezakegu egunerokoan gaitzaren agerpena atzeratzeko?

Elikadura, kirola eta bizitza estresagarria ez eramatea garrantzitsuak dira.

Zeintzuk dira zuen erronkak?

Gaixoen atentzioarekin lotutako arazo ekonomiko larriak egongo dira. Izan ere, botika berriak oso garestiak dira eta ez dakit gizarte segurantzak ordaindu ahal izango dituen. Asistentzia pertsonalizatzen den heinean, arazo berriak sortuko dira. Egun gure ustez arazo berbera duten bi gaixok ez diote tratamenduari berdin erantzuten. Zergatik? Euren gaixotasunari buruzko informazioa falta zaigulako. Gero eta informazio gehiago izango dugu eta bakoitzak zer botika behar duen jakin-goto dugu, baina kasu batzuk oso apartekoak izango dira eta laborategiek ez dituzte eurentzako botikak egin nahi izango. Laborategiak ekimen pribatuaren eskutan daude eta ekimen publikoa arduratu beharko litzateke ikerketez.

Beste arazorik ikusten al duzu?

Diru publikoa tratamenduen ikerketan gastatzen da eta diagnostiko goiztiarrera bideratu beharko litzateke. Proba oso sinplea nahikoa da pertsona batek minbizi bat edo beste bat izateko arriskua duen jakiteko. Behin hori jakinda, segimendua egin beharko litzateke minbizia agertu bezain pronto kentzeko. Botika industriaren eskutan gaude: aurrekontu publikoaren zati handi bat botiketan gastatzen da. Nahi al duzu Belgikari buruzko gauza gehiago kontatzea?

Zergatik ez?

Belgikak oso garai interesgarria bizi zuen ni han izan nintzenean: urte haietan flamenkoak eta frantses hiztunak banandu ziren Bruselako Unibertsitate Librean. Egoera gogorra bizi zen ospitaletan eta zenbait medikuk ingelesez hitz egiten zuten elkarren artean. Zergatik? Batek ez zuelako frantsesez hitz egin nahi eta besteak ez zuelako flandestarrez mintzatu nahi. Flandestarrek euren hizkuntza hitz egiten al genuen galdetzen ziguten medikuoi eta ez genuenok beste mediku bati deitu behar genion. Tentsio handiko egoera bizi izan zen, baina oso ondo konpondu zuten: flandestarrez lan egiten duen ospitalea sortu zuten, baina frantses hiztunak ere hartzen dituzte. Nire ustez elebitasuna hizkuntza bat bestearen gainetik dagoenean bakarrik da jasagarria. Bi hizkuntzak bata bestearen parean jartzen direnean, tentsioa sortzen da. Euskara ospitaletan galtzaile den bitartean ez da ezer gertatuko, baina jendea euskaraz hartzea eskatzen hasten denean arazoak sortuko dira. Euskal Herrian euskaldunen eskubi-deak bermatuko dituen ospitalea egon beharko luke.

Salamancan ikasten zuten gainontzeko euskaldunekin.



Euskal Herriko ospitalez ari garela, minbiziaren tratamenduari dagokionez, maila ona al dute?

Europako gainontzekoekin ez dago alde-rik. Gipuzkoak zorte handia du: lehen aze-leragailua izan genuen eta berrikuntzak Araba eta Bizkaira baino lehenago hel-zen dira. Hori Kutxari esker da.

Egoitza berria eraikitzen ari zarete.

Gainontzeko ospitaleak dauden tokian. Espazio falta dugu eta gaixoeak eta profe-sionalek estutasuna sentitzen dutela iru-ditzen zait. 9.000 metro koadro izatetik 23.000 izatera pasatuko gara.

Luzaroan jarraitzeko asmoa al duzu?

Nire ametsa medikua izatea zen eta beharbada berriro mediku lana egitera itzuliko naiz.

Zuzenbide ikasketak ere badituzu.

Nire eguneroko lanean beharrezkoa da, nahiz eta ikasketak bukatu ondoren jabe-tu naizen horretaz. Semeetako bat zuzen-bidea ikasten hasi zen, bere liburuak gus-tatu egin zitzaizkidan eta nik ere matriku-latzea erabaki nuen. Semeari ez zion inongo graziarik egin. Egun Bizkaiko herri bateko idazkaria da.

Bestelakoan, zer zaletasun dituzu?

Mendira joatea, irakurtzea eta musika en-tzutea gustatzen zait. 10 urte daramatza-gu Hendaian. Garai batean handik bidali gintuzten eta bota zaituzten tokira itzuli beharra dago! Asteburuetan Ezcarayra joaten gara. Han mendi asko daude eta gainera koadrilakoek ere etxetxoak dituz-te bertan. Nire koadrila Arrasatekoa da. Bestalde, Ezcaray Nafarroa da. Najera Nafarroako erreinuko hiriburua izan zen eta bertako elizan Nafarroako lau errege daude hilobiratuta. Guztiok nafarrak gara, batzuk ekialdekoak eta besteak mende-baldekoak. Azkenaldian historia irakurtzen ari naiz, batez ere Nafarroako erreinukoa-ri dagokiona. Aitak ere zaletasun handia zuen... Beti esaten zuen Sabino Aranaren tesia jarraitzea hanka-sartzea izan zela. Bere ustez, Arturo Campionenak ziren jarraitu beharrekoak. Sabino Aranak Euskadi izeneko herrialdea asmatu zuen eta nazioarteko zuzenbidean ez du inon-go zilegitasunik. Campionek euskaldunok izan dugun estatu bakarra berreskuratu behar dela esaten zuen. Nafarroak nazioarteko onarpenera zuen eta tratatuak

sinatu zituen. Sanz ekialdeko nafarra da, baina gu mendebaldeko nafarrak gara eta kito. Nahi duena esatea du.

Zumarragara joaten al zara?

Bai noski. Santa Isabel eta Santa Lutzia egunetan ahal dudan guztietan joaten naiz. Bestalde, iaz Beitia martxa egin nuen. Aurten, ordea, ezin izan dut bukatu. Geroz eta zailagoa jartzen dute... Ba al dakizu zer gertatzen zaidan? Ni baino gazteagoak ez ditut ezagutzen eta asko-tan nire adinekoak ere ez. Ospitalera Zumarragako jendea etortzen da eta asko pozten naiz hirugarren solairura igotzen badira ni bisitatzera. Lehen haurtzaroko oroitzapenez galdetu didazu eta Orbegozok ekarri zituenak kale gorrian zeudela oroitzen dut. Ez zuten non lo egin. Apaiz gazte abertzale batzuek seku-lako ahalegina egin zuten jende hari osta-tua emateko. Etxerik etxe joaten ziren herritarrei kanpotarrak hartzeko eskatuz. Erdigunetik aparte eta bizi baldintza txar-retan bizitzen uzten bada, ghettoak sor-tzen dira. Apaiz haiek horren kontra borro-katu zuten.

Orbegozok ari zarela, azkenaldian asko hitz egiten ari da kutsadurak osasune-an izan dezakeen eraginaz. Zer diozu?

Kutsadurak zenbait gaixotasun sor ditza-ke, baina neurketak egin beharko liriteke toki bakoitzean duen eragina jakiteko. Belgikatik itzuli nintzenean Aparizio auzo-an azterketa bat egin genuela oroitzen dut. Zarata jasanezina zen eta etxerik etxe joan ginen jendeak zein botika har-tzen zituen ikusteko. Lasaigarri asko har-tzen zirela ikusi genuen. Txostena udale-txean aurkeztu genuen eta arazo hori kon-pontzeko diru asko behar zela esan zigut-en. Gaiak hobera egin duela uste dut.

Mikel Lizarralde: Gizonezkoa, gaztea, euskalduna... eta bidentea

Mikel Lizarralde urretxuarrak etorkizuneko gertakizunak iragartzeko ahalmena zuela ikusi zuen umetan. Dohain horrek ezinegona sortu zion berari eta bere familiari eta urte batzuetan ez zuen garatzeko ahaleginik egin. Gaztetan jakinmina piztu zitzaion eta ordutik hainbat ikastaro egin ditu. Iaz K'an li txoko majikoa denda ireki zuen Donostian.

Mikel Lizarralde, Donostiako bere dendako kontsultan.



Nolatan piztu zitzaizun mundu honekiko zaletasuna?

Ez da izan nik erabaki dudana gauza. Txikitatik egon den zer edo zer da. Nire amak beti esaten du ume berezia izan nintzela. Beste batzuek ikusten eta esaten ez zituzten gauzak ikusten eta esaten nituen. Ahalmen hau blokeatu egin nuen, baina handik urte batzuetara berreskuratzen egin nuen.

Nola garatu duzu dohaina?

Betidanik sentsazio bereziak izan ditut eta gauzak ikusi ditut. Gurasoei komentatzen nizkien eta amak Mari Jose Bermejorengana eramango ninduela esaten zidan, berarengandik ikasteko, baina ez zen ausartu. 14 urterekin itsulapikoa apurtu eta tarota erosi nuen. Ondoren, 2004an, Kanadara ikasketak egitera joateko aukera suertatu zen eta joan egin nintzen. Urte eta erdi eman nuen bertan,

Marilyn Rossnerrekin. Berak eta bere senarrak Nazio Batuekin akordio bat sinatu eta eskola ireki zuten. Iragarpen eta intuizio kontuko titulazio ofiziala ematen duen eskola bakarra da. Prestakuntza serioa eskaintzen dute eta azterketak egiten dituzte.

Zer irakasten da bertan?

Bakoitzari duen onena ateratzen laguntzen zaio eta psikologia asko lantzen da. Montrealeko ospitaleko psikologia sailarekin lan egin genuen. Lan soziala ere egin genuen, trauma handiak zituzten familiekin. Bidentzia nola landu, beste munduan daudenekin harremanetan nola jarri... ere irakasten da. Nire espezializazioak bidentzia eta izpirituekin kontaktuak dira.

Tarota, bidentzia... zer dira? Askoren ustez gezur hutsa besterik ez dira.

Alde batetik tarota bezalako iragarpen metodoak daude eta bestetik bidentzia dago. Tarota bezalakoak laguntzeko gida dira, tresna bat. Ezin dira arrazoiaren ordezkioak izan. Tarotean gure beldurrak eta gure desirak agertu daitezkeenez: kartetan ikusten duguna aurrean dugunaren etorkizuneko gertaerak edo beldurrak diren ezberdintzen ikasi behar dugu. Gure munduan jende askok intuizio handia du, baina ez du prestakuntza egokirik. Askok esan behar ez zituzten gauzak esan dizkiete bezeroei. Eurekin konektatzen ez dutenean, sekulako astakeriak esaten dizkiete. Intuizioarekin ez da nahikoa, aurrean duguna ezagutu behar dugu eta bera-ekin enpatia izan. Tarotak bide bat edo bestea hartzen badu zer gerta dakioken jakiteko balio du. Gure bizitzan gauza batzuk aldatzea gure esku dago, baina beste batzuk lehenagotik idatzita daude.

Zer diozu bidentziaz?

Alde batetik bidentek daude eta bestetik mediumak. Lehenek pertsonaren auran dagoen informazioa irakurtzen dute. Ia denok ikasi dezakegu hori egiten. Mediumak, berriz, mundu honetan

“2002 inguruan akordioa

egongo dela ikusi dut.

Indarkeriaren

amaieraren hasiera

izango da”

ez daudenekin harremanetan jartzen dira. Bezeroari eta bere etorkizunari buruzko datu oso zehatzak eman ditzakete. Medium guztiak bidentek dira, baina ez alderantziz.

Umetan iragarpenak egin zenituela esan duzu. Nolakoak izan ziren?

Gertaera haiek nire burutik ezabatu nituen, baina Kanadara joan nintzenean amak gogorazi egin zizkidan. 8 bat urte nituenean aitaren lagun min bat ospitalera eraman zuten, baina nik ez nuen bere gaitzaren larritasunaren berri. Ospitaletik atera zela esan zidaten, baina nik hilda ikusi nuen. Inguruko guztiei hurrengo egunean hil egingo zela esan nien eta hala suertatu zen. Nire gurasoek ez zekiten egoera hori nola bideratu, ni errudun sentitu nintzen... Beste behin, Zumaiako hondartzan emakume batek lauburu bat galdu zuen eta laguntza eskatu zidan. Handik 200 metrora zegoen itzalkin baten azpian zegoela esan nion. Han zegoen.

Etxekoek nola bizi zuten hau guztia?

Gurasoak euskaldun eta katoliko peto-petoak dira. Ez zekiten nola bideratu. Beldurra ematen zien. Kanadara joan nintzenean, kontua serioa zela ikusi zuten. Aurten nirekin eraman ditut eta nire irakasleak ezagutu dituzte. Oraindik errespetua diote, medium lanetan hasi nintzenean hotz handiarekin eta nekatuta bukatzen bainuen. Egunen batean zer edo zer gertatuko zaidan, energia gabe bukatuko dudan, beldur dira.

Zuen jarduna arriskutsua al da?

Zer ate jotzen ari zaren ez badakizu, bai. *Formula 1* autoa gidatzea bezala da: formazioa eta praktika behar dira, noiz azeleratu eta noiz gelditu jakiteko. Halako auto batekin Urretxuko kaleetan ibili ezin daitekeen bezala, nire lana ezin da edozein tokitan egin. Sekula ez nuke toki publiko batean egingo. Toki lasai eta purifikatuak behar ditut. Izpirituek ezin gaituzte fisikoki minik egin, baina gure barrena jota utzi dezakete. Nire kasuan, ezin diot izpirituari nigana gehiegi gerturatzen utzi. Beste batzuek, ordea, trantzea izaten dute: izpirituari euren barruan sartzen uzten diote. Niri ez zait ona iruditzen nire gorputzaren kontrola ez izatea.

Nola lan egiten duzu zuk?

Hasteko, intsentsua jartzen dut nire energia duen toki batean. Kandela zuririk gabe ere ez nuke lanik egingo. Zutik eta begiak itxita lan egiten dut. Parean dudan pertsonak bere izena esaten dit eta bere aho-tsaren bitartez izpirituekin harremanetan jartzen naiz. Bere iragana eta bere etorkizuneko gauzak azal daitezke. Mundu honetan jende askok izpirituek hau edo bestea diotela esaten du, baina nik noren izpiritua den jakin beharra dut. Bestela,

baliteke mezua beretzako ez izatea. Kontaktua eteten denean, izpirituak esandakoa ahaztu egiten zait.

Zeren eske jotzen du jendeak?

Barneko bakearen bila etortzen dira. Tarotaren eske etortzen direnei dagokienez, emakumezkoek familia eta amodio kontuengatik galdetzen dute eta gizonezkoek lanaren inguruan galdetzen dute. Kontuz ibili beharra dugu, bezero askok psikologo baten beharra baitute. Horiek identifikatzen jakin beharra dugu. Muga non dagoen ere argi izan behar dugu. Batzuek guk dena konpontzea nahi dute, ez daude inongo esfortzurik egiteko prest. Ni ez naiz Jainkoa: ezin dut inoren bizitza konpondu.

Nola laguntzen diozue jendeari?

Zeruan dauden senitartekoekin konpondu gabe utzi zituztenak konponduz, esan gabe gelditu zirenak esanda eta haiek ondo daudela jakinda, adibidez. Bestalde, psikologian ere trebatuak gaude eta eza-gutza hau euren eguneroko bizitza gidatzeko erabiltzen dugu. Ez diet kontsultara itzultzen uzten sei hilabete baino lehena-go. Bestela, batzuk engantxatu egingo liriateke. Une jakin batean laguntza eskaintzen dugu, baina norberak bere bidea egin behar du.

Zeintzuk dira zuen bezeroak?

Gehienak emakumezkoak dira. Euskaldun gazte asko ere etortzen dira gurera. Ez nuen halakorik espero. Hasieran 50 urte inguruko emakume baten bila etortzen ziren eta ni ikusten nindutenean harritu egiten ziren: gizonezkoa, gaztea eta euskalduna. Ez nator bat este-reotipoarekin eta beharbada horregatik nire bezeroak ere ez dira ohikoak.

Emakumezko asko etortzen zaizkizula

esan duzu. Zergatik uste duzu?

Mundu honetara irekiagoak dira. Zer edo zer ulertzen ez dutenean, beste bide bat hartu daitekeela uste dutenean... errazago onartzen dute. Bestalde, gizonezko batzuk ez dira gurera etortzera ausartzen eta emaztea bidaltzen dute. Emakumeak afektiboagoak dira, irteera bat nahi dute eta ate gehiago jotzeko prest daude.

Nolatan ireki zenuen denda?

Nire lankideak Alde Zaharrea lan egiten zuen eta bere lokalean kontsulta jarri nuen. 2007ko urrian hona etorri ginen. Mineraletan espezializatutako denda nahi nuen eta material asko dugu. Intentsuak oso bereziak dira eta liburuak ere baditugu. Ikastaroak eta terapiak eskaintzen ditugu: mineralogia, kristaloterapia, esku irakurketa, reiki, erlaxazioa, meditazioa...

Zer dela eta ematez diozu horrenbeste-ko garrantzia mineraliei?

Lasaigarriak dira eta energia igortzen dute. Mineralen kokapen zehatz baten bitartez, bezeroak nahi duena bultzatzen dugu. Jende asko etortzen zaigu bere etxeko planoekin. Egun Usurbilgo haur eskolarekin lanean ari gara. Bertara joan nintzen, toki kaltegarriak zeintzuk ziren ikusi nuen eta horietan izandako umeak urduriak zirela esan zidaten. Mineralak jarri ditugu eta haurrekin emaitza hobekak lortzen ari dira. Urruñako enpresa batekin ere lan egiten ari gara.

Zuen dohainak askotan erabiltzen al dituzue zuen etorkizuna iragartzeko?

Norberak bere etorkizuna iragartzea oso zaila da. Hori erakusten duen kasua izan dut duela gutxi: Gabon gauean nire anaia lotara joan zen eta Gabon egunean ez zen esnatu. Bihotza gelditu zitzaion. Nire uestez, gauza batzuk jakitea ez zaigu

komeni. Anaiaren heriotzaren berri alde aurretik izatea ez zen ona izango niretzat. Nire anaia-arrebek anaiari afarian zehar hiru aldiz bihotzeari zuena ateratzeko eskatu niola esan didate. Nik ez dut oroitzen. Dena den, nire barruko ahotsa askotan erabiltzen dut. Otsailean nire pisukideak etxebizitza margotu nahi zuen. Ez genuen etxebizitzaz aldatzeko asmorik, baina udazkenean aukera suertatuko zela eta ez margotzeko esan nion. Hala gertatu da: aurki beste pisu batera joango gara.

Nola ikusten duzu mundua?

Datozen 10-12 urteak oso zailak izango dira. Txina asko haziko da, baina baita gogor erori ere. Politika eta klima kontuan desoreka handiak egongo dira. Egun Marsellan dagoen tenperatura 2016. urtean Brighton parean izango da. Kantauri itsasoa etorkizuneko Mediterraneo da. Hurrengo 5-7 urteak bereziki gogorrak izango dira Euskal Herriarentzat. Nik ez dut oraindik bakea gertu ikusten, baina bidentziaren bitartez 2022 inguruan akordioa egongo dela ikusi dut. Indarkeriaren amaieraren hasiera izango da.


Bukatzeko, zein da munduaren eta bizitzaren zure kontzeptua?

Ez dut esango katolikoa ez naizela, nire hezkuntza katolikoa izan baita. Jainkoan sinesten dut. Sortzaile horri mundu toki ezberdinetan izen ezberdinak eman zaizkio. Sortzaileak ez du gure bizitza gidatzen, baina batzuetan galga sakatzen du eta besteetan azeleragailua. Bestalde, hil eta gero bizitzen jarraitzen dugu. Elizak gorputza eta arima ditugula saldu digu, baina ez da hala. Gorputza dugu, baina hiltzen garenean arimak bere garapenarekin jarraituko du. Nahi edo behar badu, beste gorputz bat hartuko du.

1985

Jose Maria Busca Isusiri omenaldia

Igande honetan Jose Maria Busca Isusiren oroimenezko buzkantza lehiaketa izango da. Hona hemen 1985ean Udalak gastronomo zumarragarrari eskainitako omenaldian ateratako argakia. Ezkerretik eskubira: Jesus Iturbe zinegotzia, Carmen Agirre Buscaren emaztea, Blanca Galdos alkatearen emaztea, Jose Maria Busca Isusi bera eta Juan Mari Garitano Zumarragako alkatea.




ESKERTZA
PEDRO ELGARRESTA ZABALA
 2008ko irailaren 20an hil zen
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana



Beatriz Saiz: 25 urte eta gero, gimnasia erritmiko eskolari agur

Beatriz Saizek Urretxuko gimnasia erritmiko eskola sortu zuen duela 25 urte. Berehala ikasleen estimua lortu zuen eta ordutik ehunka gaztetxoren irakaslea izan da. Neskek kirola egitea lortu zuen, mutilen kontua zela zirudien garaian. Irailean eskola utzi behar izan zuen, bizkarreko arazoak medio



Beatriz Saiz, atzean gimnasia erritmiko taldeko ikasleak dituela.

Burgostarra zara jaiotzez, noiz etorri zinen Euskal Herrira?

Ezkontzeko etorri nintzen, 1975ean hain zuzen ere. Senarra Zumarragako da, baina soldadutza Burgosen egin zuen eta bertan ezagutu genuen elkar. Oso gazte ginela ezkondu ginen. UBI hemen egin nuen! Ondoren irakasle-ikasketak egin nituen Gasteizen eta gimnasia erritmiko entrenatzaile titulua ere badut. Zelai Arizti ikastetxean ordezkapenak egin nituen eta zenbaitek ordutik ezagutzen naute. Zumarragako moja ikastetxean ere gimnasia eskolak eman nituen. Lanpostua eskaini zidaten, baina oraindik ikasketak bukatu gabe nituen eta ez zitzaidan etikoa iruditu onartzea. Tontakeria ederra egin nuen! Dena den, ondo atera zitzaidan: erabaki hari esker gogokoa dudan horretan lan egin ahal izan dut.

Nolatan zara gimnasia erritmiko zalea?

Ezin izan nuen praktikatu, nire garaian ez baitzen existitzen. Gimnasia artistikoa edo neskena bakarrik zeuden. Umetan baleta egin nuen, nire familian dantza zaletasun handia baitago. Burgosko dantzak jorratu ditugu, zehazki. Nire aitona-amonak dantza eta musika zaleak ziren dagoeneko eta guk euren pausoak jarraitu ditugu: nire ahizpak, nire koinatuak...

Zergatik aldatu zenuen dantza gimnasia erritmikoarengatik?

Nire pasioa dantza eta kirola izan dira. Eskubaloian jokatu nuen. Hiriburu bate-tik etorri nintzen eta 1975ean apenas zegoen ezer hemen. Nire bizilagunetako bat Mari Carmen Alberdi zen eta bere alabari eskola eman nion. Halako batean Alberdik Urretxu eta Zumarragako neska gazteek kirola egiteko aukerarik ez zutela eta zer edo zer egiteko eskatu zidan. Nahikoa prestatu gabe ez nuela inor entrenatu nahi erantzun nion eta Donostian gimnasia erritmiko irakasleak trebatzeko ikastaroa eman behar zela esan zidan. Lehen belaunaldiko kidea izan nintzen eta ondoren ni ere entrena-tzaileen irakaslea izan naiz.

Berehala ireki al zenuen Urretxuko eskola?

Ez. Hori ez zuten ondo hartu Donostian, guk lehenbailehen kirol hau sustatzea nahi baitzuten. Ez nuen eskola abian jarri ahalik eta ikastaroa bukatu arte. Lehen ikasturtean La Salle-Legazpiko ikastetxean eman genituen eskolak. Ondoren Urretxuko kiroldegia ireki zen eta hona etorri ginen.

Ba al dakizu zenbat neska pasatu diren zure eskolatik?

Ideiarik ere ez dut. 30 baino gehiagorekin

hasi ginen. Sekulakoa izan zen. Berehala bi talde osatu behar izan genituen eta beti izan ditugu neskak gurean hasteko zain. Gainera, hasieratik Legazpiko neskak ere etorri dira.

Non datza zure ekimenaren arrakasta?

Ez dakit, baina hasieratik oso ondo mol-datu naiz neskekin.

Azpeitian ere irakaslea izan zara.

Duela 20 urtetik hona Azpeitian bizi gara, nire senarrak bertan lan egiten baitu. Bertara joan ginenean Urretxuko kirolde-giko monitore lana utzi nuen Azpeitikoan lan egiteko. Azken urteotan Urretxura gim-

*“Mari Carmen Alberdik
neska gazteek kirola
egiteko aukerarik ez
zutela eta zer edo zer
egiteko eskatu zidan”*

nasia erritmiko eskolak ematera bakarrik etorri naiz.

Azpeitira joan zinenean ezin izan zenuen kirol hau utzi...

Aipatu bezala, nire pasioa dantza eta kirolak dira. Gimnasia erritmikoak bi jarduera hauek nahasten dituela kontuan izan behar da. Gainera, liluragarria da. Entrenatzaile asko ezagutu ditut eta guztiek dena ematen dute. Izan ere, kirol honetan entrenatzaileak dena egiten du: musika aukeratu, koreografia lana... Gainera, neskekin egotea oso aberasgarria da. Batzuek eskolan 15 urte eman dituztenez, hazten ikusi ditut.

Neskek asko aldatu al dira?


Lehen aroa zoragarria izan zen. Garai hartako neskek nire garaikoon antzera-koak ziren. Ondorengo urteetan gurasoei eskola haurtzaindegia zela iruditu zitzairen. Amek, eurek kafea hartzen zuten bitartean edo lana egiten zuten bitartean, haurrek zereginen bat izan zezaten ekartzen zituzten hona. Alde horretatik aldaketa eman da gurasoen artean, one-rako gainera. Oraingoek badakite neskek zertara ekartzen dituzten eta euren gara-pena jarraitzen dute. Ikasleren batek kale egiten badu, pisuzko arrazoi batengatik da eta ez Donostiara arratsalde pasa eraman dutelako.

Gogorra izan al da eskola uztea?

Bai. Haurrak eta garai bateko ikasleak agurtzeko aukera izan dut, baina gura-soekin eta urte hauetan guztietan jarrai-tu gaituen jendearekin ez dut egoterik izan. Askok poztu nau zuen deiak, eurei guztiei eskerrak emateko aukera eskaintzen baitit. Babes handia eskaini didate eta nire beharra duten guztietan laguntzeko prest nago.

Argi izan al duzu gimnasia uzteko garaia heldu dela?

Iaz dagoeneko nahiko gaizki ibili nintzen. Medikuak lanaren eraginez zela esan zidan eta oporraldiak mesede egingo zidala uste nuen. Hala izan da, baina lanera itzuli bezain laster bizkarreko mina ere itzuli da. Itxurak egin nitzakeen, baina gimnasia erritmikoak badu bere irakaskuntza metodoa eta ezin da eskuak poltsikotan dituzula irakatsi. Bizitza osoa gimnasia egiten pasatu ondoren, batzuetan hutsik sentitzen naiz. Zorionez pertsona baikorra naiz eta hutsune hori betetzen jakingo dut.



Alex Areizaga

Informatika

Windows XP ue 7

Osabak informatika albisteak ere idaztea gomendatu badit ere, hori egiten hurrengo alerako saiatuko naiz. Bitartean, *Windows Vista*-z nazka-nazka eginda daudenentzako gomendioa utziko dut. Askok uste dutenez, ordenagailu bat formateatzea ez da beste munduko lan bat. Instalatu nahi duzun sistema operatiboaren diska izatea izan ohi da zailena, edota diska horrentzako zenbaki-seriea, *Windows*-en kasuan. Hala ere, bada serialik behar ez duen *Windows* bat: XP ue 7 bertsioa, hain zuzen. *E-mule*-tik jaitsi daiteke eta ordenagailua formateatzen eta *Windows* instalatzen lagunduko dizu. Honetarako, ordenagailua diskoa barnean dugula piztu besterik ez dugu egin behar. Instalazioa amaitzean, beharrezko *Driver*-ak sarean aurkitu beharko ditugu ziurrenik. Horretarako *Softonic*-etik eskuratu daitekeen *Everest* programarekin gure ordenagailuaren ezugarriak aurkitu beharko ditugu, eta hauen araberako bilaketa egin beharko dugu.



Izaro Soraluze

Osasuna

Botika birtualak

Internet bidezko medikamentu salmenta, Erresuma Batuan eta Herbehereetan izan ezik, Europar Batasun osoan galerazita dago. Hala ere, Internet medikamentuen supermerkatu handi bihurtu da. Espainia mailan oraindik % 2 gainditzen ez duen arren, geroz eta gehiago dira sarearen bidez saltzen diren farmakoak. Antidepressiboak, anabolizanteak, esteroideak eta argaltzeko, ilearen erorketa galarazteko eta disfunzio sexualerako erabiltzen direnak saltzen dira gehien. Errezetarik gabe eta inongo kontrolik gabe saltzen dira. Medikamentu hauen %62 faltua da, printzipio aktibo gutxiago darama edo produktu toxikoren bat eraman dezake. Gainera, ez dakigu jatorria, ezta kontserbazio egokia izan ote duten ere. Gehienak, Txina, India eta Emirerri Arabiarretatik datoz: prospekturik gabe eta ontzi originaletatik kanpo. Kamuflatuak izan dira aduanetako kontrolak pasatu ahal izateko. Osasun publikoarentzako arriskua agerikoa da. Izan ere, medikuaren, diagnostikoaren arduradunaren, eta farmazialariaren, farmakoaren arduradunaren, kontrolik gabe kontsumitzen dira.

Etortzeko joanak

Antzina idatzi zien Ritak gurasoei helbiderik gabeko lehen gutuna. Hura Maite zaituztet esanaz hasi zuen gerrako umeak. Izan ere, gudatik urruntzeko agurtu zituen estazioan, negar bakarrik egin ahal izan zuen. Ordudanik, bizitzaren azken hiru laurdenak daramatza aurreko laurdenera eramango duen trenaren zain. Gaur bezala.

Geltokia euritik gordetzen duten burdinazko egitura hotzetan ilaran jarrita, goitik begiratzen diote usoek. Ritari so daude. Hegoaldeko herrialdeetatik bueltan fokuen epelean egin dituzte habiak.

Ikusten dute nola burua eskuin eskuaren gainean etzanda eta ukalondoa izterrean iltzatuta dituen. Eserita dago larru urratuko maletatxoaren gainean. Hankak zintzilika ditu, kulunkatu egingo balitu bezala. Horregatik, tarteka, Rita Lizar irakurtzen da ume letraz maletan; eta tarteka baita ere, nahita agerian utzi dituen gantxilozko cotton perle galtzerdi zuriak.

Tertziopelo urdin-iluneko lazoak kentzen dio ile lakarra kopetatik. Oinak eta burua umetxo batek bezala jantzita ditu. Ezpainetan sehaska kanta bat darabil, minez. Lepokoan amak oparitutako eraztuna darama, txiki geratu zaiolako zintzilika hau ere. Begiratzen dio, zulotik, eta guda-lekuan jolastuz ikusten du bere burua.

Balkoitik, parkean dauden hurrei begiratzen die Teok. Aspaldian ez du kalerik zapaldu. Logelatik egongelara eta egongelatik balkoira eramaten dute laukidun fieltrozko etxe-ko zapatilek, arrastaka. Eta zerua gorritzen denean kontrako bidea egiten du ohean negar egiteko. Gaur gero egingo duen bezala.

Momentuan, euriak higatutako zumezko besaulkian eserita dago. Gorputza indarge eta begi ximurrak jolasean dabiltzan umeen artean, aurkituko ez dutela dakiten neskatilaren bila. Ile harrodun bati segi diote, baina ez da beraiek nahi luketena.

Egunero une hori iristen denean egiten duen bezala, errukiz begiratu dio magalean duen katu grisak. Eta eguneroko errituala betez erantzun dio agureak: ogi-mami bolatxoak jarri

ditu barandailaren gainean, besaulkiaren inguruan, ihartutako landare-ontzietan... iparraldetik datozen usoak bera agurtzera etor daitezten.

Izan ere, emaztea hil zenetik oso bakarrik dago eta gudatik trenak eramandako alabaren irudia ahaztuko duen beldur da.

Beldur dira Ritari so dauden usoak, fokuen beroaren goxoan, lumek su hartuko dieten beldur. Habiak eta beren oinordekoen arrautzak txingar txikienarekin kiskaltzeko arriskua dutelako.

Arriskua dute geltokia irekitzen duen lehenengo trenak, edo estazioko argiak itzaltzera etortzen denak, konturatu gabe, harrapatzekoa. Joan-etorrien hegaldi luzeen ostean, hegoek tregua behar izaten dute. Eta geroz eta isilagoak diren trenek oharkabean harrapatzen dituzte, burdinbideko harriko korren artean, mokoarekin urre bila, haurrak parkean bezala, jolasean dabiltzanean.

Teori konpainia egiten dieten usoei, hurrek, parkean jolasean dabiltzanean, harrika ere egiten diete gupidagabe. Gudazelaietako biktima errazenak dira. Katetik askatutako txakur kumeak bezala, atzetik antxintxika, estu hartzen dituzte neska-mutilek algara artean. Ausartenak ostikoak ematen ere saiatzen dira. Usoek aztoratuta, hanka txikiak salto txikiak egiten, hegoak dar-dar betean... gibelean entzuten dute nola areagotzen diren jarraitzen dituzten zala-parta eta xaramelak.

Entzuten dute, mmmmmrrrr-mmmmmmmrr, katua desafioka, atzaparrak gainera botatzeko irrikan. Haren biboteek kiliak egiten dizkiete garondoan, baina ez diete barregurarik eragiten. Ume baten inozentzia behar da balkoi honetako paisaian irri egiteko. Ume baten inozentzia, eta, datozen eta doazen usoek eraztun bat ekartzea oinean.

Amaia Artolazabal Amilleta

Idoia Luzuriaga

Idoia Luzuriagak ikastolan eta lizeoan ikasi zuen. Ondoren Bilbora joan zen Kazetaritza ikastera. "Komunikazio mundua asko gustatzen zitzadan, baina Bilbora gogo txarrez joan nintzen. Ez zitzaidan hiri interesgarria iruditzen, baina nire iritzia erabat aldatu zen". Komunikabide askotan lan egin du, Goierriko Hitza azkena. Bi seme-alaba ditu eta ama langilea izatea zein gogorra den ikusirik, errealitate hori hobetzeko zer edo zer egitea erabaki zuen. Berdintasunari buruzko master bat egin zuen eta arlo horretan hasi da lanean, kazetaritza utzita.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Emagina. Jaiotza une majikoa iruditu zait beti. Zientzia alorreko ikasgaietan gaizki moldatzen nintzen eta kazetaritza ikastea erabaki zuen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lasai egotea: familiarekin egon eta irakurri.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

Berdintasunaren alde lan egin dutenen artean, ba al dago bereziki miresten duzunik?

Nire amaren belaunaldikoak asko miresten ditut. Aldaketa askotara egokitu behar izan dute eta zaintzaile lana egin behar izan dute, besteak beste, eta euren lanak ez du merezi duen aitortpena.

Nor iruditzen zaizu bereziki matxista?

Arturo Perez Reverte jasangaitza iruditzen zait. Burura etorri zaidan lehena da, baina asko daude. Baita emakumezkoak ere.

Nor elkarrizketatuko zenuke gustura?

Sekula ez dut pentsatu nor, baina bai nola. Sakoneko elkarrizketa pertsonala jende askori egingo nioke. Askotan egunkarietako elkarrizketak azalekoak dira.

Prentsa, irratia ala telebista?

Irratia.

Ikusiko al zaitugu mikrofonoa eskuan berriro?

Mikrofonoa oso gustukoa dut eta beti hitz egiteko prest nago. Beti irratian lan egiteko gogoia izan dut eta beharbada idealizatuta dut.

Ilehoriak ala beltzaranak?



Biak.

Egindako azken oparia?

Familiako jaioberri bati egin diodana.

Eta jasotakoa?

Hitza utzi nuenean lankideek egindakoa.

Data bat?

Seme-alaben jaiotza egunak eta maiatzaren 5a.

Neska eta mutil izen bana?

Seme-alabena: Ane eta Iker.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Eskura ditudan guztiak irakurtzen ditut.

Gustuko telebista saioa?

Ez dago bereziki atsegin dudana bat.

Bereziki gorroto duzuna?

Futbol partidak.

Pelikula bat?

Isabel Coixet zuzendariaren *Mi vida sin mí*.

Liburu bat?

Gioconda Belliren *La mujer habitada*.

Soinu bat?

Itsasoarena.

Usain bat?

Ogi egin berriarena.

Janari bat?

Dena gustatzen zait.

Ura ala...

Ardoa.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia

☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net

ZUMARRAGA



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAITZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:

3.300€

(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS

finantziario berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€

ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**